

Heziketa Zikloetako ikasleak Enpresa Gazte Ekintzailea programan parte hartzen daude

2008/11/03

Heziketa Zikloetako ikasle talde bat Enpresa Gazte Ekintzailea programan parte hartzen dago.

Programa hau Asturiasen jarri zen martxan baina gaur egun Estatuko erkidego guztietako kideek hartzen dute parte. Eusko Jaurlaritzak TEKNIKAren bidez bultzatzen du programa.

Programa honen helburua, ikasleengan ekintzailetasun izpiritua sustatzea da. Horrela, ikasleek kooperatiba bat sortu eta erregistratu behar dute: izena, logotipoa, organigrama... Ondoren produktu katalogo bat osatu beharra dago eta egokitzen zaien beste ikastetxe batekin harreman komertzialak hasi. Aurreko ikasturtean, esate baterako, Almeria eta Madrilgo ikastetxeekin trukatu ziren harremanak.

Aurten kooperatiba bakarra sortu dute: Zexaun, Koop. E. Bederatzi pertsonak parte hartzen dute bertan: Ianire Oleaga, Alazne Castaños, Agurne Agiriano, Saioa Altuna, Ana Lage, Ibet Aranguren, Eneida Cerqueira, Lourdes Romero eta Cristina Alfonso.

Maiatezan kooperatiba likidatu beharko dute, eta diruaren zati bat koopertibako 9 bazkideen artean banatuko dute, beste zatia ekinta sozialera bideratuz.

